

## 1. MAILA

## 2. MAILA

## 3. MAILA

## 4. MAILA

### 5.1.1. Barne-ebaluazioa sustatzea eta kanpo-ebaluazioak egiten laguntzea, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei buruzko datuak eta frogak izateko, bai eta ikastetxearen antolakuntzari eta funtzionamenduari buruzkoak ere.

Ez dago ikastetxearen planteamendurik, zuzendaritzak bultzatakorik, barne-ebaluazioen mekanismoak erabiltzeari buruz, edo hasiberriak dira.

Araudiak eskatutako puntuetan laguntzen du, kanpo-ebaluazioak egiten.

Zuzendaritzak barne-ebaluazioko mekanismoak erabiltzen ditu, eta hortik zenbait datu interesgarri sortzen dira, ikasteko eta irakasteko prosesuei buruz eta ikastetxearen antolakuntzaz (adibidez: klaustroak balioesten ditu egindako jarduerak, eskolako emaitzak aztertzen dira, hezkuntza-komunitateko eragile batzuen iritzia jasotzen da, ikasgelen funtzionamendua behatzeko eskalak erabiltzen dira...).

Ebaluazio horren emaitzak urteko memoria jasota daude.

Aktiboki parte hartzen du eta kanpoko ebaluazioek emandako datuak aztertzen ditu, haiekin hobekuntzarako ekintza-plana egingo da.

Ikastetxeko zuzendaritzak barne-ebaluazioak egiten ditu aldi behin, ikasteko eta irakasteko prosesuei buruzko datu adierazgarrienak biltzeko eta aztertzeko, bai eta ikastetxearen antolakuntzari erreparatzeko ere. Zenbait datu-iturri erabili eta kontrastatu dira.

Kanpo-ebaluazioetan laguntzen du eta eskatu ere egiten ditu, barne-ebaluazioan lortu dituen datuekin alderatzeko balioko dioten datuak lortzeko.

Barne- eta kanpo-ebaluazioen datuak kontuan hartuta, hobetzeko planak prestatzen dira, eta gero kalitate-adierazle baten bidez ebaluatzen dira.

Ikastetxeak sistematikoki erabiltzen ditu barne-ebaluazioak eta kanpo-ebaluazioetatik jasotako datuak, ondorioak ateratzeko eta etengabeko hobekuntza-prozesuaren oinarriak jartzeko.

Etengabeko hobekuntza-prozesuen eragina nabarmentzen da ikastetxearen funtzionamenduaren, eskola-emaitzen eta eskola-giroaren hobekuntzan.

Bere esperientzia partekatzen du, eta ikerketak eta beste ikastetxe batzuen jardunbide egokiak erabiltzen ditu gai honi buruz ikasteko.

Hezkuntza-komunitateak aintzat hartzen du ikastetxeak egiten dituen ebaluazioen balioa.

### 5.1.2. Ikastetxea bera ikastetxearen kudeaketa hobetuko duten proiektu globaletan sartzeari (KKS, EFQM eta beste batzuk).

Ikastetxearen ebaluazio globala egiteko premiarik ez da hautematen.

Ikastetxe barnean kudeaketa hobetzeko prosesuei ekin zaie.

Zuzendaritzak bultzatzen du kudeaketa hobetzeko proiektu integral edo globaletan sartzeari ikastetxea (adibidez: KKS, EFQM, beste proiektu batzuk...).

Ikastetxearen egiaztapena eta onarpena sustatzen ditu (KKS, ISO, EFQM, beste proiektu batzuk...).